



Joxe Mari Aranalde euskaltzale eta bertsozale gazteluarra zendu da

ATZO ▶ Kultur gizona,
lanbidez apaiza, 72 urte
zituela hil zen, atzo, Ibarra

HILETA ▶ Bihar izango da
haren aldeko hileta elizkizuna,
jaioterrian, 17:30ean ▶ 7



Joxe Mari Aranalde. HITZA



Usabal kirol eta aisialdi gunearen inaugurazio ofiziala egin dute

TOLOSA ▶ Atzo egin zuten Usabal kirol eta aisialdi gunearen inaugurazio ofiziala Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Tolosako Udaleko agintariak, herritarrez inguratuta. Ekitaldiaren ondoren hasi ziren era guztiak kirol ekintzak bertan. Tolosa Bizirik herri ekimenak Usabal «gazi-gozoa» dela azpimarratu du: «Ezker aberzaleak soilik defendatu du herritarren nahia». N. LIZARTZA ▶ 6

TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA ▶

Etzi jakinaraziko dira II. HITZA lehiaketako argazki finalistak

Oraindik argitaratu gabe zeuden
irudiak ikusgai dira gaurko alean ▶ 4-5

Iriarte
GERRUNTZE • LENZERIE
Korreo kalea, 7 • TOLOSA

**AZKEN
ESKAINTZA**
**%50 - %60
%70eko
BEHERAPENA**

LANDARRI, S.L
Hilerrien ustiapena eta kudeaketa
Kanposantuko Lanak

- Ehorzketak	- Hilerrien proiektuak	- Panteoiak
- Lurpetik atera	- Hilerrien eraldaketa	- Hilobiak
- Gerakinen lekualdatzea	- Eraikuntza ezberdinak	- Estelak
- Gerakinen errausketa	- Hilobi apaingintza	- Fotozaramikak
- Errausketa zerbitzua	- Hilariak	- Estanpaziozko teknikak

Santa klara, 1 behe - 20400 Tolosa
Tel/Faxa: 943 67 01 14
Zerbitzu Iraunkorra: 610 552 552

Bidasoa kalea, 7 behe - 20100 Errenteria
Tel/Faxa: 943 34 04 67 - 943 51 31 41
Zerbitzu Iraunkorra: www.landarri.com

IRUDIETAN ▶

Lortuko al du
Peñak Guinness
errekorra?

LEIRE MONTES

ARGAZKIAK: NEREA LIZARTZA

Testutxo hau irakurtzean behar bada marka lortuta izango du Carlos Peña igerilari tolosarra, eta Guinness Errekorraren Liburuan idatzita bere izena. Atzoko irudiak dira, baina, honakoak: urduritasuna, jakinmina, eta emozioa.



Igerilaria, uretara sartu baino lehenbeago.



Laguntzaile, adiskide, politikari eta, oro har, jendearen animoak jaso zituen Peñak.

IRITZIA ▶ IRAZKI (TOLOSALDEKO ELKARTE KULTURANITZA)

Irazki (euskaletza, *urdimbre* gaztelaniaz). Luzetara jarritako hariak osatzen dute irazkia. Guk, elkarte-kook, elkarbizitza sustatzen duten kulturarteko koloretako hariak izan nahi dugu. Urte askotan elkartasun horretarako traba izan diren kultur, erlijio eta hizkuntza desberdintasunak gainditzen, harmonian, bakean, elkar babesten.

Irazi elkarte kulturantza nazionalitate askotako lagunak osatzen dute. Jasotzeko duten beharrak elkartzen ditu, baina baita emateko sentitzen duten beharrak eta eskaintzeko duten guztiak: kultura, gizatasun zentzua, bizitzaren ikuspegia, historia... Horrek guztiak aberastu egiten ditu kulturak. Gure bizilagunak ezagutu behar izango bagenitu, haien kultura ulertzen saiatu beharko genuke, gutxienez.

Zenbait helburu ditu elkarteak: he-dabideak migrazio-mugimenduen eta kulturen elkartrukearen alde onen inguruan sentsibilizatzea; elkarbizitza sustatzea; gai interesgarriak eta jatorrizko lurraldeei buruzko informazioa jasotzea eta helaraztea; iristen diren etorkinei babesa eta aholkua eskaintzea; zonaldeko elkarten arteko ezagutza eta lankidetzaren alde onen inguruan sentsibilizatzea; eta beste kulturengatik eta bizimoduengatik ikastea.

Horretarako, hainbat oinarri hartzen ditu kontuan: kultur desberdintasuna aberasgarritzat hartu; besteak ezagutzeko moduak erraztu; herritar berriei kultura berria ezagutzeko baliabideak eman; norberaren nortasuna babesteko askatasuna errespetatu; elkargu-neak bilatu; eta kultura guztiak duinak eta errespetagarriak direla sinistu. Tolosaldeko eta munduko biztanle guztiak helarazi nahi diegu mezu hau, hie-

rarkiarik ezarena, kulturen arteko benetako elkarbizitza finkatuko dugulako horrela. Bi urteko ibilbidea du Irazki, eta hainbat proiektu landu ditu: Tolosa murgilduz, formazio ikastaroak, tailerrak, hitzaldiak... Eta *IpuinARTEan* proiektua jaio da orain.

Elkarteko bi partaideren ideia izan zen. Argitalpen komisioko kideak dira biak, eta artistak: Alberto Letamendi (Euskal Herria) eta Hector Luna (Ekuador). Lehendik ere bazen gure asmoa zibilizazioen ipuinak ikastetxetan kontatzea. Afari batean, kontinenteak batzeko, elkarlana bultzatzeko eta kulturak aberasteko beste formula bat aurkitu zuten biak: artea. Hurrengo egunean komisioko beste bi kideei, Lucia (Kolonbia) eta Jeannine Obono (Ekuatore Ginea), beren asmoa azaldu zieten. Indarrak batu eta lanean hasi ginen, ikuslea sentsibilizatzeke, bertakoei besteen kulturen berri emateko, eta etorkinei eta jendeari oro har euskal kultura ezagutarazteko.

Hurrengo pausoa beste kolaboratzaile bat bilatzeko izan zen: Sukru Karakus (Turkia), duela hamahiru urtetik Tolosan bizi den artista handia; izan ere, Luciak, lan arazoak direla eta, ezin izan baitzuen jarraitu. Hilabete beranduago Ana Sanz euskalduna gehitu zen proiektura. Txixi Orbegozo artistaren jarri ginen lehendabizi harremanetan (bidelagun nekazina proiektuaren amaierara arte). Hark aurkeztu zigun Zumeta, artea maisuki ezagutzen duen artista. Haiek ate asko zabaldu zizkiguten, eta laguntza handia eman ziguten. 36 artistek egin zuten bat eki-

'IpuinARTEan I'

menarekin: Alemania, Belgica, Bosnia-Herzegovina, Kolonbia, Kuba, Ekuador, AEB, Filipinak, Finlandia, Ekuatore Ginea, Inuit, Irlanda, Italia, Japonia, Mexiko, Erresuma Batua, Turkia eta Euskal Herria.

Irazki kultur adierazpenen bi elementu batu ditu: arte, eta ipuinak, kondairak eta mitologia. Bost kontinentetakoak landu ditugu, eta oso garrantzitsutzat jotzen ditugu kulturak ezagutzeko, haietan islatzen baitira lurralde horietako herritarrek belaunaldiz belaunaldi transmititu nahi izan dituzten beldurrak, dohainak, baloreak eta ikasbideak.

Artistek erabateko erantzuna eman ziguten, eta beren obrak kontakizun horietan inspiratuz landu zituzten. Aukeratuak testua artistarenean ez zen beste kultura batena izan behar zuen; horixe zen baldintza bakarra. Emaitza Aranburu Jauregiaren dago. Eskerrik asko guztiei. Era berean, liburu bat argitaratu dugu, erakusketan ikusgai dauden lanen argazkiekin eta testuekin, euskaraz, gaztelaniaz eta artistaren jatorrizko hizkuntzarekin. Bestalde, jardunaldiak era antolatuta ditugu: urriaren 7an debatea eta 14an mahai-ingurua, 21ean ipuin kontalaria, 27, 28 eta 29an Ekuatore Ginearen eguna, eta bideo emanaldia azaroaren 4an. Udako kultur teknika Jokin Ansorenaren laguntzarekin, gainera, *IpuinARTEan I*-eko erakusketa beste hainbat aretotan izango da ikusgai.

Irazkiren etorkizunak harreman zuzena du haurren kultur mailarekin; horregatik, ikastetxetan erakusketa bul-

tzatu nahi dugu, eta kulturen arteko jardunaldiak antolatuta.

Gure helburua IpuinARTEan bi urte-tik behin egitea da. Edizio bakoitzan lurralde bat gonbidatuko dugu. Aurten Ekuatore Ginea izango da; horregatik, hango Kultur ministerioak bi artista garrantzitsuenetakoei beka eman die erakusketan parte har dezaten: Felix Edu Alo eta Ricardo Madana Mateo.

Eusko Jaurlaritzak, Gizarte ekintzak, Artelekuk (bere zuzendari Santi Erasoren eskutik) eta Gipuzkoako Foru Aldundiak babesten gaitu; eta Aranburu Jauregiaren, Ondoingo Udalaren, Basteroren, Okendo kultur etxearen, Donostiako Udalaren, Basauriren, Kultur Basauriren, Eibarko Udalaren, Zarauzko Udalaren, Sanz Enearen, Torre Luzearen, Ekuatore Gineako Kultur ministeritzaren, Iruñeko Udalaren, Leioako Udalaren, Kultur Leioaren, Alberdaniaren laguntza izan dugu. Tolosako Udalarik eta Tolosa 750. Urteurrena Fundazioari bereziki eskertu nahi diegu ospakizunetan parte hartzen utzi digulako. Lehen egunetik proiektua gauzatzeko babesa eman zigun, Gurutze Zubeldiaren eskutik.

Animatu nahi zaituztegu erakusketa honetaz gozatzeko, bakean, maitasunean, tolerantzian. Asteartetik larunbatera bisita daiteke Aranburun, goizez eta arratsaldean.

Helburu bera duen talde batek ereindako landarea da hauxe: batasuna eta elkar ulertzea artearen eta kulturen bidez, horiek baitira bizitza mugitzen duten hariak. Proiektuak pertsona bakoitzarengan daude, eta horiek betetzeko topatzen ditugun arazo asko ere geure barruan daude.

(erredakzioan itzulia)

iragarki laburrak ▶

Correos. Langileak behar ditu honako lanetarako: banaketa, sailkapena eta bezeroari arreta. Informazioa doan 943 65 01 93 telefonon.

Suhitzaileak. Hurrengo deialdiak. Gipuzkoan. 1.400 euro hilean, bi

lanegun astean. Azken plazak. Informazioa doan 943 65 01 93 telefono zenbakira deituz gero.

Gidariak. Hurrengo deialdiak: Donostia, Eusko Jaurlaritza. Astean 35 ordu. Informazioa doan. 943 65 01 93.

Administrari laguntzaileak. Hurrengo deialdiak: Beasain, Bergara, Sorraluze, Mutriku, Zizurkil, Mendaro eta Anoeta. Astelehenerik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informazioa doan. 943 65 01 93.

Haur eskola publikoak. Haur

zaintzaileak, bereziak, adinekoak eta hezitzaileak behar dira. Lanaldia, astelehenerik ostiralera. Informazioa doan 943 65 01 93 telefono zenbakian.

Laborategiak. Plaza libreak. Teknikoak, ikertegiko laguntzaileak,

Eusko Jaurlaritza. Informazioa doan 943 65 01 93 telefono zenbakira deituz gero.

Administrari laguntzaileak. Plaza libreak daude udalberako. 35 orduko asteak. Informazioa doan 943 65 01 93 telefono zenbakira deituta.



Kontzentrazioa ezinbestekoa zuen uretara sartu aurreko unetan.



Unea iritsia zen dagoeneko.



Igerian hasteko unea. 24 ordu zituen aurretik.

ESANA ▶



BARBARA GOENAGA ▶ AKTOREA

«Ametsa izaten ari da Juan Jose Campanella zuzendariarekin lan egitea»

«Etorkizunean ere gidoi polit batekin eta istorioa kontatzeko gogoia duen zuzendari batekin aritu nahi dut»

UZTURRETIK ▶ AMAIA AGIRRE

Udazkena



Irailak hogeita bi. Osteguna. Goizeko hamaiakak. Udazken ataria. Bezpera. Uda luzearen azken arnasa. Orbeltzen ari den neska gazte bat sartu da egunkaria irakurtzen ari nintzen tabernan. Hamazazpi udaberri soilik omen ditu, baina neguko gaurik ilunenak adina argi du begietan. Begi zuloetan noraeza baino ez zaio kabitzen.

Egunkarietako albiste gogorak ez zaizkit hain gogorak iruditu neska gazteak nigana etorri eta telefono dei bat egiteko hogeixentimo eskatu dizkidanean. Ondoren zigarro bat eskatu dit. Ondoren sua. Bizitzaren sua itzali zaiton hari kea zerion ahotik. Pena hartu dut.

Ez nuen errukirik sentitu nahi. Bertso baten amaiera izan daitekeen hamar-zortzi silabako esaldi hau borobildu dut ustekabeen: edozer guzua da aski ona dena galdu dutenentzat. Nik

bost minutu lehenago nuen patxada soilik galdu dut.

Garai batean ustez zoriontsu egiten zuten drogek goizegi bideratu dute udazkenara. Ez du berriz Arrasatera itzuli nahi. «¿Mondragón? Ez dut nahi han egon!». Hala aitortu du zortzi ertzaina eta anbulantzia bat bere bila etorri direnean. Haren psikiatrak bilatzeko agindua eman omen zuen duela hiru egun.

Azken hiru egunetan eskatu dit dirua. Tabakoa. Sua. Bizitzak erakusten omen du pairatzen, eta pairatzeak bizitzen. Nik ez diot aukerarik eman. Berak aukeratua soilik eman diot. Bizitzak ez dio, ordea, bigarren aukerarik emango.

Malko artean eraman dute. Taberna hutsik geratu da. Gure barruak ere bai. Ezaguna ez izan arren eta eskean etorri den aldiro «bakean utz nazala» desiatu arren inork ez dit kenduko lagundu ezinak eragindako impotentzia.

Irribarre zabal eta goxo bat irudikatu dut haren ezpainetan. Duela urtebete galdu zuen berbera. Hogeixentimo, zigarro bat eta poxpolo bat gorde ditut itzultzen denerako.

hitza

lagunen txokoa

HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

Txartela HITZAREN harpidedun laguntzaileek eskuratuko dute

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon
osagaiak
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

ILUAPAINJEGIA
honekin

TOLOSA
Tel.: 943 65 24 30

kanikak

San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK

Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR

Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

II. HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶

Irudi guztiak agerian

Arrakastatsua izan da HITZAK antolatutako II. Argazki Lehiaketa; hauek dira publikatu gabe zeuden irudiak; etzi, asteartea, jakinaraziko dira zortzi finalistak, eta ordutik bozkatu ahal izango dute iraurleek



Aintzane Artola (Tolosa). Umeboa, Abaltzoketan, ebe inguruko behiak zaintzen, «uda osoan bezala».



Amaia Agirre (Tolosa). Trinidadeko herririka, Kuba.



Endika eta Goros (Tolosa). Onddosa, Alsasu inguruan.



Ander Otazabal (Irura). Vêjer de la Frontera (Cádiz), herri zuri tipikoa, uztailaren 22an.

ERREDAKZIOA

128 argazki eta 46 parte-hartzaile. Horietatik dira Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAKEN II. Argazki Lehiaketak utzitakoak. Lehen edizioak arrakasta handia izan zuen, eta bigarren honetan ere primerakoa izan da men erantzuna. Batilo, leku eta mota askotariko irudiak iritzi dira erredakzioa. Eta guztiak dute beren xarma, ehunka istoria daudelako atzean, mila bizipen islatzen dituzelako.

Egunotan jasotako argazki publikazioen aritu da HITZA askeneko orrialdetan, baina oraindik ere asko eta asko zen argitaratzeko orri hauekakoak dira geratzen zirenak. Irudi denak mahai gainean, etzi, asteartea, jakinaraziko dira zortzi finalistak. Ordutik aurrera bozkatu ahal izango dute iraurleek beren gustuak, hilaren 30a arte. Argazki guztiak ikusi nahi dituenak www.tolosaldeko hitza.info webgunean du horretarako aukera, irudiak atalean.



Fernando Rojo (Tolosa). Mozambikaren aterako argazkia. «Egurkia bera da mundu osoan, baina, era berean, bi eguzki berdin ez daude, non ikusi, noiz ikusi beti ezberdina baita, honi bai, beti ederra, Ekhi».



Josu Gonzalez (Tolosa). «Nire laguna Antxon».



Joxelu Larrate (Irura). Dies irak (Galizia), abuztuan.




Iker Arregi (Tolosa). Picini, Colladaren magalean.



Iñigo Gorostiaga (Tolosa). Ilunabarria Donostian.



Zuriñe Arsuaga (Lizartza). Utsapuruko neskek, Indian.



Nerea Bidaurreta (Irura). Venezia.



Monike Amets. Tivarezio lorategiak.



Jokin Pagola (Tolosa). Brujas.



Josean Estibariz (Tolosa). Garagardo festa.



Irati Ezeiza. Lehiotik begira, Macasarren, Indonesia.




Amaia, Irati eta Javi Armendia. Cambrils.



Joseba Iturbe (Tolosa). Behia Covadongako lakuetan.



Txema Zabala (Tolosa). Lago de Maribor, laino artsean.



Urtzi Armendariz eta Miren Arregi (Tolosa). Senegal.



Mikel Castro (Berastegi). «Nerea Txikiak».



Jose Mari Ezeiza (Ibarra). Indonesia.



Maidier Romo (Amezketta). Senegal.



Mikel Castro (Berastegi). «Nerea Txikiak».

FRANTSESA

DEITU EDO ETORRI

JAKON

Tel. 943-662972
(10:00-12:00 eta 18:30-20:30)
GOROSAGEL 21°
(FRANGLU OAN)
TOLOSA

GIZARTEA ▶

Kiroldegia, inauguratuta

Aurpegi ezagun asko hurbildu ziren Usabal kiroldegiaren inaugurazio ekitaldira

NEREA LIZARTZA

Atzo egin zuten Tolosako Usabal kiroldegiaren inaugurazio ofiziala. Goizeko hamaikak pasatxo zirenean moztu zuten zinta Joxe Joan Gonzalez de Txabarri, Gipuzkoako Ahaldu Nagusiak eta Jokin Bildarratz Tolosako alkateak. Jende asko bildu zen kiroldegi berrira; horien artean politikaren eta kirolaren munduko aurpegi ezagun ugari zeuden. Dantzari batek *Agurra* dantzatu ostean, alkateak hitza hartu zuen. «Zentroa Jose Gurrutxagak, Antton Izagirrek eta nik neuk gidaturiko lanaren fruitua da», azaldu zuen Bildarratzek. Ondoren, eskerrak eman nahi izan zituen, hala nola ETAK hil zuen Juan Mari Jauregi, udal teknikarier, obran aritu direnei eta, batik bat, Andoni Imazi eta Igor Aldalondori.

Alkatearen ondoren Andoni Imaz Kirol zinegoziak hunkituta hartu zuen hitza. «Lan gogorra egin dugu kiroldegi hau eraikitzeko, baina emaitza ikusita harro sentitzeko da» adierazi zuen Imazek. Beranduago, Fernando Tapia Gizarte eta Erakunde Harremanetarako Departamentuko diputatuak eta Joxe Joan Gonzalez de Txabarri hitz batzuk eskaini zituzkieten han bildutako; biak bat etorri ziren kiroldegiarekin egindako lanagatik, Tolosa zoriontzen.

Zinta moztu eta gero, Imanol Aldaregia parrokoak instalazioa bedekatu zuen. Bertaratu zirenei harrera egiteko, Tolosako gimnasia erritmikako taldeko bi kidek koreografia bat interpretatu zuten.

Kiroldegia zehaztasunez bisitatu ostean, Carlos Peña igerilariari Guinness errekorra egiten hasteko garaia iritsi zitzaion. Hamabietarako minutu gutxi falta zirenean sartu zen Peña txalo artean igerilekura.



Jokin Bildarratz eta Joxe Joan Gonzalez de Txabarri, atzo, zinta mozteko unean. NEREA LIZARTZA

Beharrezko prestaketak egin ostean, uretara sartu zen; hamabiak puntuan jo zutenean, Andoni Imazek erronka hasteko bidea eman zion. Iñaki Arratibel sendagilearen zaintzapean ariko da hogeita lau ordu hauetan igerian tolosarra.

Lehenengo 30 minutuetan bakarrik aritu zen Peña, eta gaurko azken 30 minutuetan ere bakarrik ariko da. Beste orduetan zehar, berriz, herritarrekin egingo du igerian. Erlorjuak 26 markatzen duenero geldialdia egingo du edateko; 56 markatzen duenean, oster, geldialdia jateko egingo du. Geldiune txiki horiek aprobeztatu ditu Iñaki Arratibel medikuak igerilariaren egoera kontrolatzeko, hala nola taupadak eta egoera orokorra.

TB: «Usabal, gazi-gozo»

Atzo inauguratu zuten kiroldegiaren harira, Tolosa Bizirik-ek prentsa ohar bat bidali du hainbat datu argitu asmoz. Ohar horren bitartez, kiroldegiaren proiektua EH alderdia Tolosako alkatetzan zegoeneko dela gogorarazi nahi izan dute. «Kiroldegia kokatzeko tokiareneko egokitasuna zalan-zalan jartzen zenez, horren gaineko eztabaida sustatu zen; kirol taldeek bultzatuta herri kontsulta egin zen herrian. Herritarrek nabarmen hautatu zuten kirol instalakuntza Berazubini egitea».

Hala ere, azpimarratu nahi izan dute «udalbatzarrean Ezker Abertzaleak bakarrik defendatu zuela herriaren nahia, gainontzekoek Usabalen kokatzearan alde egin baitzuten».

Bestalde, ohar horretan baita ere azaltzen dutenez, «EAJ-k eta EA-k ez zuten kirol taldeekin egiten genituen bilkuran parte hartzen. Orain, PNVk bere lorpen gisa aurkezten duen kiroldegi honetan zeri-kusi gutxi izan du, beraz».

Kiroldegia Udalak zuzenean ez kudeatzearen kexa ere azaldu dute Tolosa Bizirik-eko kideek. Horren ondorioztat jotzen baitute kiroldegiaren tarifikazio hain garestiak izatea.

hilberriak ▶

Joxe Mari Aranalde Olaondo

Martxoko hormak galdu ez duen
lili eder goiztiarra...
nehongo haizek, nehoiz, nehola,
hauts dezakeen adarra...
Nehoi gurea izateari
utzi ez dion izarra...
gaur ere bihotz eskertzea da
gure helburu, osaba.

Zure ilobak



hilberriak ▶

Joxe Mari Aranalde

Aranalde jaun agurgarria
ehunka gizonen euspena
apaiz gartsua, txit langilea
euskal idazle zuzena
beti erain duzu euskal bihotzetan
ohituren hazi ederrena.

Belauntzako Udalak

BELAUNTZA, 2005eko irailaren 25a



AZOKA ▶

Aurtengo lehen ziklamenak atzoko azokan

Tolosako babarrun berriak ere erosgai zeuden atzo Berdura Plazako azokan

PABLO ALBERDI

Atzoko azokan nobedadeak izan ziren. Berdura plazan aurtengo lehenengo ziklamenak zeuden salgai. Azalea eta pentsamenduarikekin batera, neguko apaingarriko landareen zerrenda guztiz osatu zuten. Dirudienez, dattoren asterako prezioa eta eskaintza zabalduko dute.

Barazki zerrendari dago-kionez, dagoeneko aukeran daude Tolosako babarrun berriak. Fruten zerrenda ere zabaldu egin zen atzo, mizpiradiarekin eta meloiarekin. Hazez gain, errezil sagarrak, klase askotako udareak, pikukak, intxaurrak, matxakanak eta gaztainak izan ziren erosgai. Onddo eta perretxiko zerrenda joan den astekoaren paretsua izan zen.

ATZOKO AZOKA ▶

	merk.	gares.
Berdura Plaza		
Geranioak	1,90	2,50
Antirinoa	1,00	-
Xarbota	4,00	6,00
Erromeroa	4,00	6,00
Porruak	2,40	-
Orburua	0,60	-
Lekak	0,35	0,40
Gernikako piperrak	0,20	-
Kizkur aza	6,00	-
Perrejila	0,05	0,06

Bertako produktuak

Uxoa	6,00	-
Ahatea	2,50	-
Idiollarra	4,30	-
Onttoak	18,00	22,00
Gibelurdinak	15,00	18,00
Erremolatxa	1,50	1,00
Gaztainak	2,20	2,50
Pepinoa	2,00	-
Tomatea	2,00	2,50
Tipula	0,80	1,00
Arrautzak	1,30	2,10
Behi gazta	7,00	7,50
Ardi gazta	12,00	14,00

Produktu ekologikoak

Sagarra	2,00	3,00
Intxaurrea	4,00	6,00
Kalabaza	1,60	3,04
Arroza	1,90	2,00
Letxuga	1,00	-
Azenarioa	2,00	2,50
Aza	2,50	3,00

GAZTELU ▶ KULTURA

ERREAKZIOAK ▶

A.M. PEÑAGARIKANO
BERTSOLARIA



«Bertsolaritza asko maite zuen pertsona zen Joxe Mari. Gogoan dut, behin berak gaia jarri eta nik erantzun ondoren, nola kantatu zizkidan Mattin-ek gai beraren inguruan bota zizkionak. Gizon polifazetikoa zen, eta bertsoa asko maite zuen. Irakasle gisa aritu zen Donostiako Lizeoan ere oso gizon maitatua zen».

AITOR MENDILUZE
BERTSOLARIA



«Guretzat Aranalde beste garai betako erreferentea da. Gaur egungo gai jartzaileetatik apartekoa izan da eta orain arte begirunez tratatu izan badugu, aurrerantzean zer esanik ez. Pertsona eta gai jartzaile bikain batek utzi gaitu, eta gure belaunaldiko bertsolariek orotzapan on bat gordeko dugu betiko».

BIXENTE GOROSTIDI
BERTSOLARIA



«Dudarik gabe, galera handia da euskal bertsogintzarentzat. Bertso-biltzen lan handia egin zuen Aranaldek bere bizitza osoan zehar. Tamalez, guk ez dugu asko ezagutu, baina badakigu Aranalderen lanak bertsoa gizarteko beste esparruetan txertatu duela eta, horrela, bertsoaren hedapena bultzatu duela».

JEXUX MARI IRAZU
BERTSOLARIA



«Bertsogintzan lan handia egin duen gizon alai eta jatortzat dut Joxe Mari Aranalde. Tokatu izan zait bertsotan aritzea bera gai jartzaile egonda, eta jakiten zuen baikoitzak zein gai dominatzen zituen. Horren arabera gaiak jartzen zituen gero. Gaia jarri ostean, guk botatzen genituen bertsoak adia jarraitzen zituen».

JOXEMI SAIZAR
HITZA-KO ZUZENDARI OHIA



«Eskualdean oso pertsona garrantzitsua izan zen Joxe Mari. Euskararen gure hizkuntza maite zuenez, hasiera-hasieratik laguntza eskaini zion komunikabide euskaldunak sortzeari, eta gure egunkarian ere bere kolaborazioak egin zituen maiz. Bestalde aitatzekoa da bertso munduan ere izen handiko gizona izan dela».

Joxe Mari Aranalde zendu da

Bertsogintzan eta euskalgintzan langile porrokatua, euskal kulturagintza doluz jantzi da; haren aldeko hileta elizkizuna bihar, astelehena, arratsaldeko bostetan izanen da Gazteluko elizan

J. GOIKOETXEA-J. ASTIBIA

Joxe Maria Aranalde euskaltzalea eta bertsozalea atzo hil zen, Ibarra, 72 urte zituela. Haren aldeko hileta elizkizuna bihar izango da, Gaztelun, bere jaioterrian.

Joxe Mari Aranalde Gaztelu herrian, 1933ko martxoaren 27an, jaio zen. Lanbidez apaiza zen, 1958. urtean ordenatu zenetik. Denbora laburrez Aramako abade izan ostean, Donostiako Añorga auzora bidali zuten, eta bertan jardun zuen 1959tik 1972ra bitartean. Tarte horretan, Nicolas Ormaetxea *Orixe* idazlea bere etxean hartu zuen, osaba zuena. Ondoren, Giza Formazio eta Filosofia eskolak eman zituen Donostiako Santo Tomas Lizeoan, 1997. urtean jubilatu zen arte.

Baina ez luzarorako. Izan ere, apaizgoan 27 urteko etenaren ostean, 1999an Belauntzako eta Leaburuko elizbarrutiko lanak beregain hartu zituen berriro. Aranalderen lana, ordea, ez zen apaiz-lanetara soilik mugatu. Euskararen eremuan, bertsolaritzari oso lotua... egondu izan zen bizitza ia gehienez.

Kultur gizona

Hamaika bertso idatziak ditu, eta urtetan bertso-jartzaile lanean aritu da. Halaber, *Orixe* Bertsolari Lehiaketaren antolatzaile izan da, Añorgan bertan. Bertsolariekin izandako harremanaren emaitza dira hark idatzitako liburuak. Oro har, esan liteke, bertsozale amorratua zela 1958an Ordi-



Joxe Mari Aranalde gazteluarra. HITZA

ziako Euskal Jaietako bertso saioan epaimahaikide izan zenetik. Aurrerantzean erabat

bertso munduan murgilduta bizitu izan zen; horren eredu, Xalbadorri buruz gehien ikertu

BIBLIOGRAFIA ▶

Honako hauxe da Joxe Mari Aranaldek utzi digun bibliografia, Sendoa argitalebearen Auspoa bildumaren barruan.

- ▶ *Xalbador* (1998).
- ▶ *Xalbador pertsularia* (1999).
- ▶ *Bihotzak dion hura* (1999).
- ▶ *Bertso kontuak* (1999).
- ▶ *Xalbadorren barrua* (2001).

eta idatzi duen jakituna izate.

Itzulpengintzan ere ibilia da. Manuel Lekuonaren enkarguz, 1961an liturgiako itzultzaile-taldean hasi baitzen ere, eta ia hogeire urte eman zituen zeregin horretan. 60ko hamarkadan

euskarara itzuli zuen *Margo Ederdun Entziklopediak* hegaztiei eskainitako liburukia. Lan hauek guztiak bere euskalzaletasunaren ispilu eta adierazle dira. *Tolosaldean Egutero* egunkarian ere kolaboratu zuen, *Uzturre* sailean. Ezin utzi aipatu gabe Euskaltzain Urgazle ere bazela.

Finean, Aranalderen heriotzak samin handia eragin du euskal kulturagintzako jendar-tean. Hainbat eragileren erreakzioak entzun besterik ez da egin behar horretaz ohartzeko. Nahiz bertsolari, gai jartzaile zaletuen artean, nahiz euskalgintzako idazle eta abarrek adierazi zituzten beren iritziak eta guztiak Aranaldek egindako lan oparora goraiatu zuten, gartsu.

<p>TOLOSALDEA GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA</p>	
<p>SOLDADURA ETA GALDARAGINTZA IKASTORA (Langabetuentzat) (EUSKAL KUALIFIKAZIO SISTEMAKO KATALOGO MODULARRA)</p>	
<p>IRAUPENA: 680 ordu. ZUZENDUA: Edozein pertsonentzat, nahiz gizon edo emakume. MODULUAK: 530 ordu</p>	
<p>1.- GALDARAGINTZA ETA ERAIKUNTZETAKO PLANOEN INTERPRETAZIOA 60H. 2.- EBAKETA PROZEDURAK 80H. 3.- ERAIKUNTZA METALIKOETAKO OINARRIZKO KALITATE KONTROLAK 20H. 4.- ERAIKUNTZA METALIKOETAKO LAN ARRISKUEN PREBENTZIOA 20H. 5.- ANGULUKO SOLDEAKETA ELECTRODOZ 80H. 6.- A TOPE SOLDEAKETA ELECTRODOZ 80H. 7.- MIG-MAG SOLDEAKETA HORIZONTAL ERAN 50H. 8.- TIG SOLDEAKETA HORIZONTAL ERAN 50H. 9.- EGITURA METALIKOEN EGITURAK 80H. 10.- SENTSIBILIZAZIO AMBIENTALA 10H.</p>	
<p>LANTEGIETAKO PRAKTIKAK: 150 ordu</p>	
<p>F.S.E.-LAGUNTZAZ</p>	
<p>DIRU LAGUNTZA: JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA</p>	
<p>DEPARTAMENTO DE JUSTIZIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL</p>	
<p>Matrikula irekia eta Ikastaro hasiera, 2005eko Urriak 24an. Informazioa eta matrikulatzea, telefonoa 943 65 11 47</p>	

AGENDA ▶

OMENALDIA

Lizartza. Kaxianoren omeneko ekitaldiak: 10:00etan, goiz deia, musika tresna desberdinekin; 11:00etan, meza nagusia, Alegiako Txintxarri abesbatzak Kaxianoren Meza abestuko du, eta Lizaso, Lazkano eta Agirre bertsolariek ere bertan izanen dira; ondoren, Kaxianoren omeneko eskulturaren agerpena, bertsolariekin; 14:00etan, herri bazkaria pilotalekuan; bazkaldoan, jaialdia, bertsolari, akordeonista, trikitilari eta inguratu nahi duten musikari guztiek.

DEIALDIK

Tolosaldea. Ibarra. Gazte Asanbaldak eta Galtzaundi Euskara Taldeak autobusak antolatuta dituzte urriaren 2an izanen den Kilometroetara joateko. Izena hilaera 30 baino lehen eman behar da Zubiaurre eta Karlatz tabernetan, Ibarra; eta Galtzaundi Euskara Taldearen egoitza (Nafarroa etorbidea 6), 17:00etatik 20:00etara.

IKASTAROK

Leaburu. Euskal dantzak eta gimnastika ikastaroak emango dituzte urritik aurrera. Izen-ematea udaletxean (943 675931) egin behar da urriaren 8a bitarte.

Villabona. Oinkari dantzari taldeak bi ikastaro antolatuta ditu: euskal dantzak 3 urtetik gorako haur eta gaztekoentzat eta fandango eta arin-arina adin guztientzat. Izen-ematea urriaren 7a arte egin daiteke Txermin ikastolako ganbaran, 660 139380 edo harremanak@oinkari.net.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
 Tolosa. Olarreaga, A.: Korreo kalea, 2. 943 670 128.
 Leitza. Larraia; M.I.: Elbarren, 95. 112.

Bihar
 Tolosa. Bronte, C.: Korreo kalea, 20. 943 676 013.
 Leitza. Plaza, M.: Elbarren, 36. 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Festa nahi duenak, badu!

TOLOSALDEA ▶ Iruran eta Aldaban festak dituzte asteburu honetan; ia azkenetakoak izanen dira gure eskualde honetan

JULEN GOIKOETXEA

Koloretso ekin zioten atzo goizean irurarrek jaietako bigarren egunari. Gaztetxoek hartu zuten protagonismoa goiz partean eta Irura etorkizunean artista bat baino gehiago eman ditzakeen herria dela frogatu zuten. Izan ere, marrazki lehiaketa izan zen eta parte-hartzaile guztiak barnean duten sormen guztia paperera ateratzen saiatu ziren. Jarraian, eguerdia gainean zela kontutan izanik eta hamaietakoa egiteko ordu paregabea dela jakinik, patata tortila lehiaketa egin zuten. Parte-hartzaileek beren errezetak jendarean erakutsi behar izan zituzten eta, epaimahaiaren iritziz, Enararena eta Ioritzena izan zen tortilarik onena.

Ondoren, herriko gazteen eskutik soka dantza izan zen ikusgai herriko plazan. Herritarren txalo eta animo-oihu artean arin-arin aritu ziren dantzariak ekinean.

Dantzarien ostean, gaztetxoek hartu zieten berriro txanda. Plazan kokaturik zeuden mahaietan eseri eta bazkari eske hasi ziren, goiz osoa jardunean ibilita, ordurako gose ziren eta.



Hori sasoi, hori! Dantza-sokan arin-arin! JULEN GOIKOETXEA

Baina ez ziren bazkaltzeko bildu ziren bakarrak izan, aurrez dantzari aritu ziren gazteek ere bazkari eder bat egiteko aukera izan baitzuten Aizpurua jate-txean.

Arratsaldean, ludoteka eta pailazoak izan ziren gaztetxoentzat eta toka txapelketa gazteentzat. Iluntzean, sagardo dastaketa egitekoak ziren trikitilarien auspo-soinuz alaituta, azkenik, DJ Kamel-en Disko-Top-ekin eguna amaitzeko.

Halaber, Aldaban ere jaietan dira. Eta atzoko festen hasierak gaurko egun bete-beteari eman zion txanda. Izan ere, goiz-goizetik festa giroa izanen da herrian eta mezarekin hasita, egun osoan zehar izango dira ekitaldiak, askotarikoak gainera: kirola, lehiaketa, musika eta dantza...

Festa nahi duenarentzat badago oraindik han edo hemen zertan ibilia eta non gozatua. Baliatu!

GAURKO EGITARAUA ▶

IRURA
11:00. Meza nagusia Mikel Goi Aingerua parrokian. Ondoren, dantza-tailerra, Torrelleseko eta Irurako dantzari eta irakasleekin.
12:30. Gorritiren abereak plazan.
17:30. Dantza emanaldia frontoian: Kataluniako Torrelles de Llobregat herriko L'esbart San Marti taldeko dantzari txikiak, Irurako dantzari taldeko handienekin, eta Euskal Herri mailako fandango eta arin-arina dantzari bikote batekin.
18:30. Herri kirol erakustaldia frontoian: Arrospe eta Olasagasti aizkolariak eta Aimar Irigoien eta Miren Urkiola harri-jasotzaileak.
20:00. Juan Mari Beltranen *Arditurri* emanaldia, plazan.

ALDABA
11:00. Meza nagusia.
12:00. Pilota partidak.
18:00. II. Artzai txakur lehia.
23:00. Jexuxen trikiti jazbana.

AGURRAK ▶




URTE ASKOAN
 Maialen Otxandorena (Berastegi).
 Bihar 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



URTE ASKOAN
 Nahikari Kaminos (Abaltzisketa).
 Bihar gure ebeko matrakak urte 1. Ebeko guztien partez muxu potolo bat.



URTE ASKOAN
 Manex Bengoa (Tolosa).
 Bihar 3 urte. Zorionak aita, ama eta Julenen partetik.



URTE ASKOAN
 Mireia Lezea (Berröbi). Zorionak.
 Oraingan aurreratu egin gara. Zenbat betekote dituzu? 19? Ondo pasa lagunen partez.



HITZA,
 zorion agurren
 tartea

HITZAren egoitzetara:
 Araba etorbidea, 5. beheko
 TOLOSA
 Udaletxeko bulegoa
 LEITZA

Mesedez, argazkia bi
 egun lehenago ekarri.
 Mila esker!